

## HIZKUNTZA GAITASUNEN AZALPENA

### A2

#### Idatzizkoaren hizkuntza-gaitasunen deskribapen orokorra

- Gai da eguneroko edota laneko gai arruntei buruzko testu laburrak eta errazak ulertzeko. Baita idatzizko testu errazetan informazio zehatza identifikatzeko ere, hala nola gutunetan, jarraibideetan, mezuetan eta gertaerak deskribatzen dituzten artikuluko laburretan.
- Gai da lanari, eguneroko bizimoduari nahiz ingurukoei edota familiari buruzko testu laburrak eta errazak sortzeko; baita iraganeko gertaerez, jardueraz eta esperientzia pertsonalez deskribapen labur-laburrak eta oinarritzkoak idazteko ere.

(Europako Erreferentzia Marko Bateratutik egokitua)

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Honako hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

### A2

IDAZMENA	
<b>Egokitasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaiari heldu dio.</li> <li>• Hitz kopurua bete du.</li> <li>• Kontuan hartu du nork-nori idatzi dion, zertarako...</li> </ul>
<b>Koherentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Xehetasunen bat ilun adierazi arren, testuaren informazio nagusia ondo ulertu da.</li> </ul>
<b>Kohesioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oro har, esaldiak egoki lotu ditu: oinarrizko lotura-elementuak (eta, baina, edo, bestela...) eta puntuazioa erabili ditu.</li> </ul>
<b>Aberastasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko lexikoa erabili du, eguneroko egoeren eta gaien ingurukoa (norbera, lana familia, zaletasunak...).</li> <li>• Oinarrizko egiturak erabili ditu esaldi simple eta laburrak egiteko.</li> </ul>
<b>Zuzentasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbait akats egin ditu.</li> <li>• Akatsek ez dute ulergarritasuna oztopatu.</li> <li>• Ortografia eta idaztarauak kontuan izan ditu.</li> </ul>